**ALKATETZA DEKRETUA**

*2020 000001267*

**Espediente-zenbakia:** 2020/IDA_DEK0429

## Xedea

**COVID-19ak sortutako osasun** krisia kudeatzeko Bermeoko Emergentzia Mahaiaren funtzionamendu Araudia onartzea.

## Aurrekariak

Lehenengoa: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauen egoeraren aurrean, Lehendakariak, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua emon eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak beregatzeko.

Bigarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zan.

Hirugarrena: 2020ko martxoaren 24ko 815 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, Emergentzia Mahaia eratzeko Bermeoko Emergentzia Mahaiaren funtzionamendu Araudia onartu zan.

## Argudioak

Lehenengoa: Gobernuak iragarritako normaltasunera itzultzeko Planaren arabera 2. Fasean egonda, Emergentzia Mahaiaren 2020ko maiatzaren 27ko batzarrean, COVID-19ak sortutako krisia kudeatzeko emergentzia amaitu dala baloratuta, mahai desegitea erabagi zan. Hori dala eta, mahaiaren desegitea onartu eta iragarri behar da.

Bigarrena: Erabagia hartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Entitateen Erregimenaren oinarriak onartzen dauzan 7/1985 Legearen 21.1.m) artikuluaren arabera, alkateari jagoko, beti be Osoko Bilkureari erabagi horren barri emonda egiten dan lehenengoko batzarrean.

## Erabagia

Hori guztia dala eta, honakoa erabagi dot:

LEHENENGOA: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko eratutako Emergentzia Mahaia desegitea onartzea.



STEMMA PRODERI · IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40004437000B3I1K3J1T2J6

Sinadurea eta datea
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 29/05/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/05/2020 14:35:54

EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0429
Datea: 17/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

BIGARRENA: Erabagia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua emotea Idazkaritza Sailari.

HIRUGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkurean Dekretuaren barri emotea.

Alarma egoera dela eta, erabaki honek eragina izango du apirilaren 1eko 2020/907 Alkatetza Dekretuaren arabera eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 3. Xedapen Gehigarriaren arabera.
Debido al estado de alarma, esta resolución tiene los efectos contemplados en el Decreto de Alcaldía 2020/907 de 1 de abril y en la Disposición Adicional 3ª del Real Decreto 463/2020 de 14 de marzo.

**Oharra:** sinadurea eta datea orri-oinean .



STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40004437000B3I1K3J1T2J6

Sinadurea eta datea
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 29/05/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/05/2020 14:35:54

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0429
Datea: 17/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia